



Aukera espazioa

# Borinbizkarra

Online lantegiaren emaitzak

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 23an

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aurrerapenean Borinbizkarra deritzon aukera espazioari buruz 2020ko ekainaren 23ko 18:00etatik 19:30era bide telematikoz egindako **parte hartzeko lantegiaren emaitzak jasotzen ditu agiri honek.**

Eskema honi jarraituz antolatu da edukia:

## Edukien eskema

- Testuingurua: zergatik online
- Lantegiaren lan-esparrua: Gasteizko HAPO berriaren aurrerapena
- Parte-hartzaileak
- Taldeko solasaldiaren emaitzak eta akta grafikoa
- Esker onak

# 1. Testuingurua: zergatik online

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko udal bulegoak **lantegia aurrez aurre egitea zuen aurreikusita, martxoaren hasieran**, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapen-dokumentuari buruzko partaidetza-prozesuaren barruan (BERRasmatu). Sormen-lantegia egitea zen asmoa, Borinbizkarra ingururako etorkizunerako ideiak eta proposamenak bilatu eta zehazteko.

Maiatzean, COVID-19ak sortutako osasun-egoera kontuan izanik, Udalak partaidetza-prozesuarekin jarraitzerik ote zegoen eta nola aztertu zuen. Azkenean, erabaki zen alarma-egoera amaitu ondoren jarraitzea prozesuarekin, errealitate berrira egokituz.

Hori zehaztu zelarik, eta pertsonen kopuru jakin batekin topaketa aurrez aurre egiteko ezarri ziren betekizunak kontuan hartuz, Udalak hau erabaki zuen:

- **Parte hartzeko lantegia online egitea**, ahalegin berezia eginez aurretik zabaltzen eta jendea gonbidatzen.
- **Aurretik ekintza osagarri bat egitea**: online galdetegi bat, interesdunei irekia.<sup>1</sup> Galdetegiaren helburua zen informazio interesgarria biltzea, gero lantegian horretaz hausnartzeko. Ildo horretatik, galdetegiaren emaitzek berez duten balioa azpimarratu beharra dago: **102 erantzun** jaso ziren, eta zenbait ideia funtsezko eta argi ondorioztatu, online lantegian parte hartu zuten pertsonen solasaldia gidatzeko eta haiei buruz hausnartzeko baliagarriak.

---

<sup>1</sup> Online galdetegiaren emaitzak berriazko txosten batean zehazten dira, zeinak agiri hau osatzen baitu.

## 2. Zehatzago: lantegiaren lan-esparrua

Gasteizko Udala **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusten ari da**; agiri horrek zehaztuko du hiria etorkizunean nolakoa izango den, lurzoruaren erabileren eta jardueren plangintza eta antolamenduaren bidez eta alderdi hauek kontuan hartuz:

- Indarreko legeriarekin bat etortzea.
- Azpiegitura berriak.
- Helburu estrategikoak.

Hona hemen HAPOaren oraingo berrikuspena definitzen duten **5+1 helburu estrategikoak**:

- Hiri trinkoa, konplexua eta kohesionatua.
- Landa-ingurunearen eta herrien bultzada eta babesa.
- Kultura, natura eta paisaia ondareari balioa ematea.
- Hiri iraunkorra eta energiari dagokionez eraginkorra: CO<sub>2</sub>ri dagokionez hiri neutroa lortzea helburu.
- Ekonomia aktibatzea.
- Eta, zeharkako izaeraz: Gasteiz, guztiena eta guztientzat.

**HAPOaren berrikuspena eta tramitazioa epe luzerako lan-prozesua da**, maila eta fase ezberdinetan egitekoa, lan eta idazketa teknikoak herritarren partaidetzarekin uztartuz.

Gasteizen, **BERRasmatu deitu da** HAPO landu eta idazteko prozesuari laguntzen dion **herritarren partaidetzako prozesua**. Une honetan BERRasmatu prozesuaren bigarren fasea egiten ari da, aurrerapen-dokumentuari dagokiona.

BERRasmatuaren bigarren fasea 2020ko otsailean hasi zen, eta jarduera hauek antolatu ziren orduan:

- Hiriko lurzoruak: etxebizitzak eta beste erabilera batzuk. Aurrez aurreko lantegia.
- Umeentzako lantegia.

COVID-19ak eragindako osasun egoerak, ordea, eragotzi eta baldintzatu egin zuen BERRasmaturen fase hori burutzea.

**Alarma egoera bukatu zenean, partaidetza-prozesua testuinguru berrira egokitu da.**

Hala, Gasteizko Udalak zenbait informazio eta partaidetza ekintza antolatu ditu, online eta aurrez aurre, gai hauek lantzeko:

- Gasteiz nolakoa izatea nahi duzu, hiriaz haratago? Lurraldeari eta klimari buruzko hitzaldia eta online lantegia.
- Jarduera ekonomikoak: galdetegia eta online foroa.
- Lurperatzeak libre utzitako espazioa: galdetegia eta online foroa.
- Tres Santos espazioa: galdetegia eta online lantegia.
- Herrietako lurzorua: etxebizitzak eta beste erabilera batzuk: galdetegia eta aurrez aurreko lantegia.
- **Borinbizkarra espazioa: galdetegia eta online lantegia.**
- Hirigintza eta generoa: aurrez aurreko lantegia.
- Orokorra: zabalkunderako erakusketa eta online foroa, herritarren ekarpenak aurkezteko.



## 3. Parte-hartzaileak

Online egindako lantegian **14 pertsonak hartu dute parte: 8 gizonak eta 6 emakumek**. Horietako 7 inguruko auzo elkarteetako ordezkariak edo auzokoak ziren.

Zehazki, hauek hartu dute parte:

Zabalgana Batuz auzo elkarteko 2 ordezkari
Kaleartean - Sansomendi auzo elkarteko ordezkari bat
Abendaño guraso elkarteko eta Axola guraso bakarreko familien elkarteko ordezkaria
Borinbizkarreko auzokoak (2 gizon eta emakume bat)
Udal taldeen 2 ordezkari
HAPOaren idazketa-taldeko kide bat
HAPOaren berrikuspenaren bulegoko bi kide
Prometeako bi kide



Aipatu beharra dago izena emanda zuten lau pertsonak azkenean ez zutela parte hartu.

## 4. Lantegiaren emaitzak

Lantegiaren emaitzak hiru multzotan bana daitezke:

- Lantegiari berari buruzko hasierako iritziak.
- Borinbizkarra izeneko aukera espazioari buruzko azalpenak.
- Gaur egungo espazioari buruzko hausnarketak.
- Borinbizkarra espazioa 2035ean irudikatzeko ariketa.

Hona hemen xehetasunak:



### • Lantegiari berari buruzko hasierako iritziak

Edukiei heldu aurretik, auzokoek zein auzo-elkarteen ordezkariak zalantzan jarri dute **aurrerapen-dokumentuari buruzko partaidetza-prozesuari berriro ekiteko unea**: "hau al da egiteko unerik egokiena, ekainaren amaieran? Ez da egokia, eta prozesua korrika eta presaka abiarazi dela eta nolabaiteko kaosa sortu dela dirudi".

**Formatuari buruzko zalantzak ere azaldu dira**: "online sistema al da aukerarik onena adinekoen partaidetza sustatzeko? Borinbizkarra eta Zabalzana auzo gazteagoak dira, baina Sansomendi inguruko biztanleria zaharragoa da eta, teorian, zailtasun handiagoak ditu aurrez aurrekoak ez diren saio telematikoetan".

Horrenbestez, parte-hartzaileek kezka adierazi dute partaidetza-prozesuaren emaitzaz. Azaldu dutenez, "Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspena atzeratuta dabil, baina garrantzitsua da kalitatez eta behar bezala egitea".

## • Borinbizkarra izeneko aukera espazioari buruzko azalpenak

Plan Orokorren berrikuspenaren bulegoko kideek aurrerapen-dokumentuaren helburu orokorrak azaldu dituzte, eta Borinbizkarra izeneko aukera espazioaz egiten den planteamendua.

Haien hitzetan, leku horretan "hiria jostea" proposatzen du aurrerapen-dokumentuak. Hau da, garai bateko ingurabideak sortzen duen banaketa efektua (ingurabide-barrualdea eta ingurabide-kanpoaldea) desagerrarazten saiatzea. Konexioa, komunikazioa eta barruranzko zein kanporanzko fluxuak bilatu eta erraztea da asmoa.



En la imagen aparece el espacio de oportunidad denominado Borinbizkarra en el Documento Avance y sobre el que ponemos foco en este cuestionario

## • Gaur egungo espazioari buruzko hausnarketak

Azalpenak entzun ondoren, parte-hartzaileek ingurua gaur egun **nola antzematen duten azpimarratu nahi izan dute, eta hobetu daitezkeen zenbait alderdi nabarmendu dituzte, epe laburrera konponbidea behar dutenak**. Baliteke aipatutako alderdietako batzuk Plan Orokorraren berrikuspenaren helburu zehatza ez izatea, baina gaur egun leku horren errealitatea zein den zuzenean ezagutzeko balio dute, eta zerikusia duten sailei horien berri emango zaie.

Hona hemen hausnarketak:



### Borinbizkarra gaur:

- **Trafikoaren presio handia:** garai bateko ingurabidearen 6 erreietan, Borinbizkarra auzoaren barruan, Jundizko industrialderako igarobidea baita... Trafikoak eta ibilgailu batzuen abiadurak arrisku eta segurtasunik ezaren sentipena sortzen dute. Udalarekin trafikoa moteltzeko plan bat adostu dela gogorarazi dute, eta lehenbailehen gauzatu behar dela.
- **Trenaren eragina.** Trena oztopo fisikoa da inguruan, eta eragin akustikoa ere badu. Aukerarik onena lurperatzea litzateke, gaurko planetan jasota ez dagoen arren.
- **Lursail ugari hutsik daude, eta oso utziak:** lursail horiek badute xede bat (ikastetxea, kirol-ekipamendua...) baina oraindik garatu gabe daude.
- **Sansomendi inguruan:**
  - AUOrako aparkalekua behar da.
  - Oraingo parkea sendotu beharra dago, kableak lurperatuz.
  - Txagorritxu eta Sansomendiren arteko oinezkoentzako konexioa handitu behar da, oinezkoentzako pasabide bakarra baitago.
  - Nola minimizatu ingurabidearen eta auzo berriaren artean sortu den murrutik ezin itsusiagoa?
- **Generoaren ikuspuntutik, inguruak segurtasunik ezarekin lotutako arazoak ditu gaur:** oinezkoentzako ibilbidea ingurubidean bertan, Borinbizkarra eta erdialdea oinezkoentzat lotzea, autobusak uzten zaituen lekuan gero hutsik dauden zelaiak gurutzatu behar dira... Aukerarik onena bizikletaz joatea da.



## • Borinbizkarra espazioa 2035ean irudikatzen ariketa

Ondoren, Borinbizkarra espazioa urte batzuk barru irudikatu dute solaskideek. Nola irudikatzen dute parte-hartzaileek? Nolakoa izatea nahiko lukete? Eremu horretan zer gertatzea nahiko lukete?

Hausnarketa errazte aldera, online galdetegian lortutako emaitza nagusiak ere azaldu dira.

Hori guztia abiapuntutzat hartuta, **Borinbizkarra etorkizunean nolakoa izango den definitu beharko luketen zenbait irizpide zehaztu dituzte**. Hauek dira:



### **Borinbizkarra espazioa honela irudikatzen dugu:**

- **Trafiko motelagoa duen espazioa.** Garai bateko ingurabidea eta dituen 6 erreiak birdefinitu behar dira, autopista bat delako. Gainera, 2035erako garraio publikoaren zerbitzuak garatuago egon beharko luke, eta planteamenduak ingururako aproposagoa izan. Gaur egun, autobusa ez da aukera.
- **Trenaren eragin txikiagoa.** Lurperatzeko aukerarik ez bada —"bigarren kategoriako auzoa al gara?"— gutxienez trenbideek estalki duina izatea eskatu beharko litzateke, eta inguru batzuen eta besteen arteko konexioa eta irisgarritasuna bermatuta egotea. Gaur egungo pasabideak gutxi dira. Estalkiak erabileraren bat izan lezake.
- **Barrutik eta hiriarekin konektatuta.** Zabalgana, Borinbizkarra eta Sansomendi elkarren artean josi eta konektatu beharra dago, baita hiriko beste leku batzuekin ere. Horri dagokionez, inguruak duen balio garrantzitsu bat sustatu beharra dago: erdialdearekiko hurbiltasuna.
- **Ekipamenduz ondo hornitutako zona;** oraingo HAPOan dagoeneko aurreikusita dauden ekipamenduak eta dotazioak gauzatzea eskatzen du horrek. Hezkuntza-, kirol- eta aisialdi-ekipamenduak dira. Bitartean, lursailei beste erabilera batzuk eman dakieke, baratzeak jarri, esaterako.



### Borinbizkarra espazioa honela irudikatzen dugu:

- **Natura eta bizikidetzarako berdeguneak dituen espazioa. COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioa da:** berdeguneak erabiltzen ari gara elkarrekin egon eta bizitzeko, eta osasunagatik behar ditugu. Ildo horretatik, Sansomendiko parkea sendotu eta hobetzen dela irudikatzen dugu, oso beharrezkoa baita ingururako, eta lehentasunezkoa —"bada "aukera espazio" deritzon zonatik ateratzerik?"—, kalitateko beste berdegune batzuen protagonismoaz gain.
- **Pertsonengan zentratutako diseinuarekin, auzoko bizitza lehenesten duena.** Borinbizkarrak dituen balioak eta potentzialtasunak baliatzen dituen diseinuarekin: auzo gaztea, komunitatea eta auzo-bizitza sortzea, bizikidetzaren seguru batetik —trafikoaren eraginik gabe— abiatuz, erdialdearekiko hurbiltasuna...
- **Denda txikien bizitza ahalbidetzen duen zona.** Hirigintza-araudian merkataritzarako lokalak dituzten etxebizitzak eraikitze bide ematea, dagoeneko bizitegi-erabilera zehaztuta duten lursailetan. Auzo-bizitza sortzea.
- **Erakartzen duen lekua —auzoko eta hiriko gainerakoentzat—.** Hiri osoari dagokionez erakartzeko gune bat sortzea inguruan, baina ibilgailuen trafikoa sortu gabe. Esate baterako: erreferentziako liburutegi bat, nekazarien azokarentzako kokaleku berria, gehi plaza bat...

Taldeko solasaldiaren ondoren, Plan Orokorraren berrikuspenaren bulegoak hori guztia iraunkortasun-irizpideekin (ingurumena, ekonomia eta gizartea kontuan hartuz) lantzeko ideia partekatu dute.

Guztiaren osagarri, eta lantegiak eta solasaldiak ekarri dutena beste modu batean zehaztearren, emaitzak modu grafiko eta ikusizkoan adierazten dira.

# BORINBIZKARRA: NOLA IRUDIKATZEN DUGU? ¿CÓMO LO IMAGINAMOS?

Taller online - ekainak 23 - 2020

18:00 - 19:30

- Lugar
- Zona
- Fecha
- Muga/Argi

• Olayo

• Juanjo

• Ainaia

• Karmena

• Jose

• Aitor

• Iñaki

• Julia

• Zor

• Felix

eskerrik asko guzto!! 14 personas | 6mujeres | 8hombres

¿Reactivación ahora?  Participación mayores?

¿caos?  INOPORTUNO

PROU va tarde  preocupación: qué va a salir

## 1. Primeras Reacciones

## 2. Marco avance

Base de acuerdos y objetivos PROU

documento objetivo horizonte 2024

Objetivos generales

no extenderse más

ciudad compacta - comp. lga - compacta de y para todas las personas



+ Resultados cuestionario: 302

## Borinbizkarrak: espacio de oportunidad

¡¡el barrio necesita soluciones ahora, inmediatas!!!

## 3. Borinbizkarrak HOY

parcelas desuadadas  
- colegio  
- zona deportiva | sin hacer

• Impacto Tráfico (ronda, en barrio - paso a Juviz)

• Zona Sansomendi *condición parque*  
• HVA: parking necesario  
• puente: ¿más vías conexión? *solterrar coleccionado*  
• muro horizontal (autovía - ronda)

• Impacto del Tren *mejor opción: solterrar*

• + barrio joven y tranquilo  
• mirada género: inseguridad noches (centro-barrio) *mejor opción: la bicicleta*

## 4. en 2035

sostenibilidad equilibrio

• generar polo de atracción en la zona (para el barrio y la ciudad)

ideas → biblioteca de referencia mercado base mirak

• menos Tráfico. Ronda es autopista *seguridad, peligro, rallyes, riesgo!!*  
" calmado (hoy el BES no es una opción)

• Tren: cubierta digna (pasarelas actuales son escasas) *(si el solterrar no es una opción)*

• Coser, conectar Zabalgarra Borinbizkarrak Sansomendi *entre sí y con la ciudad valor: coherencia al centro*

• Equipamientos: hacer los préstamos PROU colegio deportivos de ocio aprovechar usos: *MURTI*

• Zonas verdes: consolidar Parque Sansomendi *(es necesario incluso mejorarlo)*  
espacios verdes para la convivencia *(COVID-19)*

• diseño que prioriza personas y vida de Barrio *barrio joven seguridad convivencia*

• Comercio: viviendas con Bajos comerciales *(en las parcelas ya definidas)*

## 5.- Esker onak

**Eskerrik asko parte hartuz online lantegi hau gauzatzea posible egin duten guzti-guztiei.** Esperientzia berria da, testuinguru berri bati egokitzeko modua... eta presentzia fisikoak ematen duen kontaktuaren falta nabaritu arren, denon artean solasaldi zintzo eta kalitatekoa sortu dugula esan dezakegu.

**Eskerrik asko guztioi!**